# LOTREA

## *Barbatula quignardi* (Bacescu-Mester, 1967)

**Klasea:** Actinopterygii
**Ordena**: Cypriniformes
**Familia**: Balitoridae

### Banaketa

Pirinioetako ibaietako espeziea da. Bidasoa eta Nerbioi ibaien artean eta Ebro ibaiaren arroan dago. Orbigo (Duero arroa) eta Saja (Kantabria) ibaietan sartua.



### Deskribapena

Luzera <21 cm.
Normalki 10 eta 15 cm. artean.
Gorputz zilindrikoa, isatsaren aldea izan ezik, itxura konprimatuagoa duela.




Bere tamaina txikiak, bere koloreak eta ibaiaren ohean geldirik egoteak oharkabean igarotzea eragiten du.

### Iraute egoera

Espainian: kaltebera

Nafarroako ornodun basatien erregistroan "interes berezikotzat" jotzen da.
Aragoiko espezie mehatxatuen katalogoaren eranskinean "interes berezitzat" jotzen da.

### Mehatxuak

1-Espezie exotiko harrapariak.




2-Ibaien kutsadura



3-Habitataren suntsiketa










### Elikadura

Gauez elikatzen da batez ere. Uretako ornogabeak eta lehorteak jaten dituzte.

### Ekologia

Harri, legar edo hareazko hondoetan bizi diren arrain bentonikoak dira. Ur lasterrak, sakonera eskasekoak eta argiak nahiago dituzte. Taldetan edo sardatan elikatzen da.

### Ugalketa

Apirila eta ekaina bitartean emeak 1 mm-ko diametroa duten 700 eta 5.000 arrautza artean erruten ditu hondoan edo landaretzaren artean.
Heldutasun sexuala 2-3 urterekin lortzen du.


**Egilea:** María José Calvo


### Bibliografia


-Antón, 2006. Peces fluviales de Bizcaia. Distribución , demografía y nicho ecológico con aplicaciones de gestión. UPV/EHU
-Doadrio, 2011.Ictiofauna Continental Española. Bases para su seguimiento. DG Medio Natural y Política Forestal. Madrid
-Sostoa, A. de., Maceda, A., Figuerola, B., Canyelles, A., Cardoso, C., Monroy, M., Caiola, N., 2011. Desarrollo y aplicación  de un índice de integridad biótica para la cuenca del Ebro basado en el uso de los peces como indicadores biológicos. Confederación Hidrográfica del Ebro. Universitat de Barcelona.